

# Nazioarteko Justizia Auzitegiak giza eskubideen arloan berezkoak dituen mugapenen inguruan zenbait ohar

Oscar Abalde Cantero  
EHUko irakaslea

Giza eskubide zein gizabanakoaren inguruko ardurako Nazioarteko Zuzenbidearen zirrikitu guztietan iraizten den momentu honetan, arlo horretan Nazioarteko Justizia Auzitegiak, Nazio Batuen Erakundeko organo judizial nagusi eta ordenamendu juridiko honen erreferente jurisprudenzial gisa, bete dezakeen paperak zalantzak sorrarazten dituela dirudi. Behin baino gehiagotan leporatu izan zaio sentsibilitate berri hauetara egokitzeko azaltzen duen zailtasuna. Horren aurrean, lan honek auzitegiak giza eskubideen arloan aritzeko dituen berezko zenbait mugapen aztertzea du helburu, horrekin batera egun bere egitekoaren garrantzia azpimarratuz.

GAKO-HITZAK: Nazioarteko Justizia Auzitegia · Giza eskubideak · Eskumena · Prozedura.

## Some notes on the inherent limits of the International Court of Justice in the human rights field

At a time when the issue of human rights and concern for individuals seems to be seeping into each one of the spheres of the international law, the role of the International Court of Justice in this area, as the principal judicial body of the United Nations and as a case law reference into this legal system, seems to generate some doubts. More than once it has been blamed on its difficulty to adapt to these new sensibilities. Against this, the subject of this paper is to analyze some of the intrinsic constraints he has to face when dealing with issues related to human rights, stressing the important role he has to carry out today.

KEY WORDS: International Court of Justice · Human Rights · Jurisdiction · Procedure.

*Jasotze-data:* 2011-04-01. *Onartze-data:* 2011-05-23.

## 1. «Un faux bon sujet»?\*

Orain dela zenbait urte Nazioarteko Justizia Auzitegiaren (NJA) presidentea zenari organo horren eta giza eskubideen arteko harremanaz bere iritzia eman zezan eskatu zitzaionean, bi elementu horiek bateratzeko nahiaren atzetik benetan «faux bon sujet» baten aurrean ez ote gauden dudak azaldu zituen (Guillaume, 2001: 23). Hitz horiekin Gilbert Guillaumek hauxe adierazi nahi izan zuen: Nazioarteko Justizia Auzitegiaren instrumentu gidariei so eginez, hauek erreserbatua dizkioten funtzioak aztertuta, benetan bere lana giza eskubideen arloarekin horrela lotzearen atzetik zegoen zailtasuna. Hori ikusita, ondorengo lerroetan horrelako gogoeta baten atzean aurki ditzakegun zenbait faktore laburki aztertzeo borondatea dugu, eta faktore horiek duten eragina Auzitegiak giza eskubideen aurrezagupean zein aplikazioaren eraginkortasunean bete dezakeen paperean.

## 2. Giza eskubideen arloan Auzitegiak dituen berezko mugapenak

Nazioarteko Justizia Auzitegia, Nazio Batuen organo judizial nagusia izanik<sup>1</sup>, Estatuaren arteko gatazkak ezagutzeko eskuduntza orokor eta unibertsala du<sup>2</sup>. Ondorioz, ezerk ez dio eragozten eskuduntza hori giza eskubideen errespetuaren arloan ere egikaritzea, bai bake-garaian bai gatazka armatuaren baitan kasuak aurkezten zaizkionean<sup>3</sup>. Horrekin batera, haren erabakiak prozesuan parte diren aldeentzat behin betikoak eta lotesleak direla esan beharra dago<sup>4</sup> eta, hauen exekuzioan arazorik aurkeztuko balitz, azken aukera gisa, Segurtasun Kontseiluak, Nazio Batuen Kartaren 94. artikuluari jarraiki, bere erabakien exekuzioa bermatzeko aukera izango luke<sup>5</sup>. Beraz, paperaren gainean bederen, Auzitegiak giza eskubideekin lotutako gaiak aztertzeo eskuduntza edukiko luke, honi beste organo askok ez dituzten aplikazio-aukerak gehituz, besteak beste, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ez zituenak, bere 14. Protokoloa indarrean sartu arte behintzat<sup>6</sup>.

---

\* Honako lan hau Eusko Jaularitzak finantzaturako ondorengo ikerketa-proiektuaren baitan osatua izan da: *Instrumentos y técnicas de protección de intereses y derechos de personas físicas y jurídicas mediante el Derecho internacional público y privado* (erref. IT496-10).

1. Nazio Batuen Kartaren 7. eta 92. artikulua eta NJAren Estatutuko 1. artikulua.

2. NJAren Estatutuko 36. artikulua.

3. Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Txostena. Sir Robert Jennings, Nazioarteko Justizia Auzitegiaren presidentearen interbentzioa Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusian, A/46/PV44, 22. or.

4. NJAren Estatutuko 59. eta 60. artikulua.

5. Artikulu horren bigarren paragrafoari jarraiki: «Si una de las partes en un litigio dejare de cumplir las obligaciones que le imponga un fallo de la Corte, la otra parte podrá recurrir al Consejo de Seguridad, el cual podrá, si lo cree necesario, hacer recomendaciones o dictar medidas con el objeto de que se lleve a efecto la ejecución del fallo».

6. 14. Protokoloa indarrean sartu arte, GEEHren 46. artikulua sententzien exekuzioari dagokionez honako hau zioen: «[I]a sentencia definitiva del Tribunal será transmitida al Comité de Ministros, que velará por su ejecución». 14. Protokoloak, bere 16. artikuluan, aurrekoa emendatuz exekuzio-sistema berrindartuko du eta ez-betetze kasuetan, bi hereneko gehiengoz, kasua berriz ere Auzitegiari igortzeko aukera jasoko du, azken horrek ez-betetzea konfirmatu dezan, kasua Ministro Komitearen esku utziz. Besteak beste, Ruiz Miguel, 1997; Soria, 1992; Pastor, 2007: 208 eta hur.; Fernández de Casadevante, 2007: 529 eta hur.

Edonola ere, eta orain arte esandakoa alde batera utzi gabe, giza eskubideen aurrezagupen zein aplikazioaren inguruan Auzitegiaren presidenteari sortutako dudak partekatzeke arrazoirik ez da falta. Horretara garamatzaten arrazoi nabarmentenak aztertzeraz zuzenduko ditugu ondoko lerroak.

## 2.1. Auzitegiaren mandatua bera

Auzitegia, bere eskuduntza kontentziosoaren baitan, Estatuak aurkezten dizkio-ten estatu arteko gatazka orori irekia dago; gizabanakoek bertaraterik ez dute<sup>7</sup>. Giza eskubideen arloko beste zenbait instituziori begira, honako hau lehenengo diferentzia garrantzitsu bat dugu; izan ere, arlo honetan normala baita gizabanakoek gutxienez nolabaiteko atzipenik izatea, gai honetan menerapen osoa ez duten kasuetan<sup>8</sup>. Honako hau Nazioarteko Zuzenbidea orain dela gutxi arte Estatu zentratutako kontzepzio klasiko baten ondorioa dugu, oraindik hein handi batean dirauena. Nazioarteko ordenamenduan gizabanakoaren lekuak Auzitegia sortu zen garaitik gaur arte jasan duen eboluzioa handia izan bada ere, Estatuak dirau oraindik ere ordenamenduaren subjektu ahalguztidun, jaun eta jabe (Zyberi, 2007: 118).

Eskuduntza kontsultiboaren kasuan, Auzitegiak irizpen kontsultiboak eman ditzake bai Batzar Nagusiak bai Segurtasun Kontseiluak aurkezten dizkio-ten galdera juridikoei erantzunez. Gainerako organo zein erakundeek, berriz, Batzar Nagusiaren aurreko baimena lortu eta gero, eta bai Kartak bai Auzitegiaren Erregelamenduak aurreikusitako baldintzak bete eta gero aurkeztu ahal izango dizkiote beren zalantzak Auzitegiari<sup>9</sup>. Beraz, arlo honetan ere gizabanakoek ez dituzte Auzitegiaren atek irekita.

Horri gehitu beharko genioke bai arlo kontentziosoan bai arlo kontsultiboan gizabanakoei zein Gobernu Kanpoko Erakundeei *amicus curiae* gisa parte hartzea ere eragotzi izan zaiela (Shelton, 1994: 611-612; Ascensio, 2001: 897). Azken horien kasuan, bi prozedura ezberdinak arautzen dituzten xedapenen edukia hitzez hitz erabat berdina ez bada ere<sup>10</sup>, badirudi Auzitegiaren Erregelamenduak atek ixten dizkiela baita arlo kontsultiboan ere, bi prozeduretan erabilitako terminoen esanahia berdintzean<sup>11</sup>. Gai honen inguruko praktikak, hala ere, ez du

---

7. NJAren Estatutuko 34. artikulua bere lehenengo paragrafoan honako hau dio: «Sólo los Estados podrán ser partes en casos ante la Corte».

8. Hau Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren kasua dugu, honen ondorioz kasuei aurre egiteko bere gaitasuna kolokan ikusi duelarik hain kasu kopuru handia sortu eta gero. Honen inguruan antzeko proposamenak aurkeztu ziren ere Nazioarteko Justizia Auzitegiari dagokionez (Janis, 1997: 205 eta hur.).

9. Nazio Batuen Kartaren 96. artikulua eta NJAren Erregelamenduaren 102. eta hurrengo artiku- luak.

10. GKE-ek *amicus curiae* gisa aritzeko topatzen duten oztopo nagusia «nazioarteko erakunde publikoei» egiten zaien aipamena litzateke, bai Auzitegiak bai Estatuak gobernu arteko erakundeei egindako erreferentziatzat hartzen baitute. Nahiz eta termino haiek beste ildo batetik interpretatzeko proposamenak defendatu diren, Estatuaren borondatea bestelakotik doala dirudi. Edonola ere, ez du eragozten mota honetako interbentzio bat Estatuaren 50. artikulua esandakoari jarraiki egitea, nahiz eta kasu honetan ere oztopo nagusia, berriz ere, Auzitegi zein Estatuaren borondatea izan (Bartholomeusz, 2005: 215-216; Shelton, 1994: 625; Ascensio, 2001: 907).

11. NJAren Erregelamenduaren 69.4. artikulua.

behin betiko ondorioak ahalbidetzen<sup>12</sup>, bereziki 2004ko uztailearen 30eko XII. Gidalerro Praktikoak gehitutako dudak kontuan izanik, zeren arlo kontsultiboan mota honetako parte-hartzeari nolabaiteko zirrikitua uzten dioten aldeko argumentuak ez baitira falta<sup>13</sup>. Gizabanakoen kasuan, hala ere, aukerak mugatuagoak direla dirudi; izan ere, Auzitegiaren Estatutuari eta Erregelamenduari begira, lekuko zein aditu moduan prozeduran aritu ahal izango dira bakarrik, bestelako aukerarik moztuz (Rosenne, 1985: 216-217). Gizabanakoen sarrera ahalbidetzeko proposamenak egon badira ere, momentuz ez bide dira errealitate bihurtzera iritsiko, bereziki euskarririk topatu ez dutelako ez Estatuaren artean ez Auzitegiaren baitan (Bartholomeusz, 2005: 217 eta 224-225).

Muga horien harira atera daitezkeen ondorio garbi bakarrenetako bat dugu Auzitegiak, giza eskubideekin lotuta dauden gaiak aztertzeke aukera duen bakoitzean, bere lanak despotismo ilustratuaren sintesizat jo izan den esaera klasikoari men egingo liokeela: «dena herriarentzat, dena herriagatik... baina herririk gabe».

## 2.2. Auzitegiaren (borondatezko) eskumenetik eratorritako mugak

Auzitegiaren lanari atxikitako bigarren muga bat kasu kontentziosoez arduratzeko duen eskumenari lotutako murrizketak liriateke. Eskumena nazioarteko konponketa judizial ororen oinarria dugu (Cheng, 1994: 259 eta hur.) eta Nazio Batuen Erakundeko kide diren Estatu guztiak aldi berean NJAko Estatutuaren parte zuzenean izatera pasatzen badira ere<sup>14</sup>, horrek ez dio Auzitegiari gatazka batean murgilduta dagoen Estatu bat epaitzeko eskumena automatikoki ematen. Aurkezten zaizkion kasuak aztertu ahal izateko, Estatuak alde aurretik modu batean edo bestean haren eskuduntza onartu beharko dute, modu horiek askotarikoak direlarik<sup>15</sup>.

---

12. *International Status of South West Africa*, Advisory Opinion of 11 July 1950, ICJ Reports 1950, 130. or.; ICJ Pleadings, 324-325; *Legal Consequences for States of the Continued Presence of South Africa in Namibia (South West Africa) notwithstanding Security Council Resolution 276 (1970)*, Advisory Opinion of 21 June 1971, ICJ Pleadings, 639-640, 672, 678-679; *Legality of the Threat or Use of Nuclear Weapons*, Advisory Opinion of 8 July 1996, ICJ Reports 1996, 66. or.

13. *PRACTICE DIRECTION XII*:

1. *Where an international non-governmental organization submits a written statement and/or document in an advisory opinion case on its own initiative, such statement and/or document is not to be considered as part of the case file.*
2. *Such statements and/or documents shall be treated as publications readily available and may accordingly be referred to by States and intergovernmental organizations presenting written and oral statements in the case in the same manner as publications in the public domain.*
3. *Written statements and/or documents submitted by international non-governmental organizations will be placed in a designated location in the Peace Palace. All States as well as intergovernmental organizations presenting written or oral statements under Article 66 of the Statute will be informed as to the location where statements and/or documents submitted by international non-governmental organizations may be consulted.*

Bartholomeusz, 2005: 220 eta hur.

14. Nazio Batuen Kartaren 93. artikulua.

15. Honen inguruan ikus, besteak beste, González, Sánchez eta Andrés, 2008: 980 eta hur.; Remiro, Riquelme, Orihuela, Díez-Hochleitner eta Pérez-Prat, 2007: 711 eta hur.

Lan honen helburua dela-eta, ez dugu ez lekua ez momentua gai horretan sakonki murgiltzeko. Hala eta guztiz ere, komeni da present izatea, adibide modura bederen, Nazio Batuen kideetatik herenak bakarrik, konkretuki 192 kideetik 66 kidek<sup>16</sup>, Estatutuko 36(2). artikulua jasotzen duen aukeraz baliatuz Auzitegiaren nahitaezko eskuduntza onartu dutela<sup>17</sup>. Gainera, onarpen hori egin duten Estatu askoren kasuan, erreserba ugariz lagundutako onarpenak izan dira, eta modu horretan, xedapen horrek jatorriz helburu zuen ideia, alegia, nahitaezko eskumena Estatu guztiei zabaltzea, hein handi batean ezerezean utzi dute. Hau modu garbiagoan ikusteko nahikoa dugu, besteak beste, Djibouti, Honduras, Hungaria, India, Malawi edo Nigeriak aurkeztutako onarpen-aitorpenak aipatzea, non garbi ikus daitekeen, Estatuaren artean izan duten arrakastari begira, bi erreserba ohiko bihurtu direla. Erreserba horiek, praktikan, Auzitegiaren eskuduntzaren mugapen garrantzitsu bihurtu dira; izan ere, alde batetik, hura gatazka armatu zein lege bidezko defentsa indibidual edo kolektiboaren edota agresioei emandako erantzunen kasuan baztertzeko dutelako; eta bestetik, nazioarteko alde anitzeko tratatuen interpretazio zein aplikazioan ere tratatuen parte diren Estatu kide guztiak prozesuaren parte gisa agertuko ez balira, Auzitegiaren eskuduntza bertan behera geratuko litzateke<sup>18</sup>. Esandakoak garbi uzten du zein puntutaraino iristen diren honako mugapen hauek, bereziki giza eskubideak gatazka armatuko egoeretan gehienbat bortxatzen direla kontuan edukita eta, aldi berean, hauen babesa arrunki nazioarteko tratatu aldeaniztunen bidez egiten delako, mota honetako instrumentuetan hauek aurrezagutuz eta nazioarteko babesa emanaz.

Adibide hau alde batera utzita, giza eskubideen alor konkretuan, zaila da Estatuak beren ekintzen fiskalizazioa borondatez onartzearen kasuak topatzea. Estatu batek beste baten portaera nazioarteko epaile baten aurrera eramatea bezain arraroa. Horren adibide paradigmaticoa dugu Genozidio Delituaren Prebentzio zein Zigorretarako Hitzarmena, 1948ko abenduaren 9koa, zeinaren baitan 141 Estatu kide topa ditzakegun, eta nahiz eta bere eduki sustantiboak *ius cogens* eta

---

16. <<http://treaties.un.org>>.

17. Artikulu honek bere baitan Estatu orori aukera ematen dio Auzitegiaren eskuduntza modu automatikoan eta inolako hitzarmen berezirik gabe onartzeko, antzeko obligazioa onartzeko prest dagoen beste edozein Estatuaren aurrean. Xedapen honen norainokotasuna aztertzeko ikus, Rosenne, 1985: 364 eta hur.

18. Hona hemen, adibide gisa, Auzitegiaren eskuduntza onartzeko NJAren Estatutuaren 36.2. artikulua araberaz Djiboutitik bere adostasun instrumentuan barneratutako erreserbak:

...with the reservation, however, that this declaration shall not apply to:

1. Disputes in regard to which the parties to the dispute have agreed or shall agree to have recourse to some other method or methods of settlement;
2. Disputes in regard to matters which are exclusively within the domestic jurisdiction of the Republic of Djibouti, under international law;
3. **Disputes relating to or connected with facts or situations of hostilities, armed conflicts, individual or collective actions taken in self-defence, resistance to aggression, fulfilment of obligations imposed by international bodies and other similar or related acts, measures or situations in which the Republic of Djibouti is, has been or may in future be involved;**
4. **Disputes concerning the interpretation or application of a multilateral treaty unless all the parties to the treaty are also parties to the case before the Court or the Government of Djibouti specially agrees to jurisdiction of the Court;**
5. Disputes with the Government of any State with which, on the date of an application to bring a dispute before the Court, the Government of Djibouti has no diplomatic relations or which has not been recognized by the Government of Djibouti;
6. Disputes with non-sovereign States or territories.

*erga omnes* arau-izaera eduki<sup>19</sup>, bere IX. artikulua, instrumentu honen interpretazio, aplikazio eta exekuziorako Auzitegiaren eskuduntza baliaraztera zuzendutakoa, ia aurkeztutako erreserba kopuru osoaren objektu bihurtu da<sup>20</sup>. Zentzu berean ulertu behar dira Tortura eta Bestelako Tratu zein Pena Krudel, Anker nahiz Iraingarrien Aurkako Hitzarmena (146 Estatu kide dituen), 1984ko abenduaren 10ekoa<sup>21</sup>, Emakumearen gaineko edozein diskriminazio moduren kontrako Hitzarmena (186 Estatu kide dituen), 1979ko abenduaren 18koa<sup>22</sup>, eta Mota guztietako arraza-diskriminazioa baztertzeko nazioarteko Hitzarmena (173 Estatu kide dituen), 1966ko martxoaren 7koa<sup>23</sup>. Estatuak modu zabalean onartutako instrumentuak dira hauek, baina haien interpretazio, aplikazio zein exekuzioari dagokionez, Auzitegiaren eskuduntza onarpenari modu zabalean ere erreserbaz lagundutakoak<sup>24</sup>.

Bigarren gaiari dagokionez, adibiderik garbiena Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ematen digu, bertan, nahiz eta Estatu kideek Hitzarmenaren 33. artikuluen arabera honen edozein ez-betetze auzitegiaren aurrean salatzeko aukera izan, bere existentzia osoan bakarrik estatu arteko hiru salaketa-kasu besterik ez da sententzia batean bukatu (Irlanda vs Erresuma Batua, 1978ko urtarrilaren 18koa<sup>25</sup>; Danimarka vs Turkia, 2000ko apirilaren 5ekoa<sup>26</sup> eta Zipre vs Turkia, 2001eko maiatzaren 10ekoa<sup>27</sup>).

Edozeinek pentsa dezake, egindako deskribapen honen ondoren, Auzitegiak arlo honetan egikaritu dezakeen papera erabat mugatua dela. Hala ere, Auzitegiaren eskumenaren inguruan ez gara erabat ezezkotasunean murgildu behar eta, noizean behin, Estatuak Auzitegiaren nahitaezko eskumena onartzen dute, bai modu orokorrean bai tratatu zehatzen aplikazioan. Horren adibide ditugu harreman diplomatiko<sup>28</sup> zein harreman kontsularrei<sup>29</sup> buruzko hitzarmenak, zeinak Auzitegiaren eskuduntzarekiko hain mesfidati den Amerikako Estatu Batuak bezalako Estatu batek haren eskuduntza onartzeko adostu dituen bi instrumentu bakarrenetarikoa diren. Pozak, halere, ez du luzaroan irauten zenbait Estatu konkreturen jarrerari atxikitzen zaizkienean, eta orain dela gutxi, Estatu honek eskuduntza

---

19. *Reservations to the Convention on the Prevention and Punishment of the Crime of Genocide*, Advisory Opinion of 28 May 1951, ICJ Reports 1951, 23. or.; *Barcelona Traction, Light and Power Company, Limited* (Belgium v. Spain), Judgment of 5 February 1970, ICJ Reports 1970, 32. or., 33-34. para.; *Application of the Convention on the Prevention and Punishment of the Crime of Genocide* (Bosnia and Herzegovina v. Serbia and Montenegro), Order of 8 April 1993, ICJ Reports 1993, 23. or., 49. para. Doktrinaren baitan ikus, Wouters eta Verhoeven, 2005: 401 eta hur.

20. <<http://treaties.un.org>>.

21. *Ibidem*.

22. *Ibidem*.

23. *Ibidem*.

24. Nazioarteko Justizia Auzitegiari eskuduntza ematen dioten giza eskubideen arloko instrumentuen azterketa sakonago bat egiteko, ikus, Gros Espiell, 2001: 416-417.

25. Irlanda vs Erresuma Batua, 1978ko urtarrilaren 18koa (*Application no. 5310/71*), <[www.echr.coe.int](http://www.echr.coe.int)>.

26. Danimarka vs Turkia, 2000ko apirilaren 5ekoa (*Application no. 34382/97*), <[www.echr.coe.int](http://www.echr.coe.int)>.

27. Zipre vs Turkia, 2001eko maiatzaren 10ekoa (*Application no. 25781/94*), <[www.echr.coe.int](http://www.echr.coe.int)>.

28. *Optional Protocol to the Vienna Convention on Diplomatic Relations Concerning the compulsory Settlement of Disputes*, 18th April 1961, <<http://treaties.un.org>>.

29. *Optional Protocol to the Vienna Convention on Consular Relations Concerning the compulsory Settlement of Disputes*, 24th April 1963, <<http://treaties.un.org>>.

horren onarpena egiten zuten instrumentuetako bat denuntziatu egin du, bertatik bere burua ateraz eta Auzitegiari eskuduntza kenduz, azken honek haren aurka emandako pare bat sententziak sortu dituen insatisfakzioa dela-eta, biak giza eskubideen arloan kokatu ditzakegarik<sup>30</sup>.

Edonola ere, komeni da garbi izatea giza eskubideak, haien berezko izaera dela-eta, Estatuaren boterea, beraien hiritarrekiko zein beste Estatuarekiko harremanetan, mugatzen duten instrumentuak direla eta, Auzitegiaren aurrean aurkezten diren subjektuak Estatuak izanik, logikak esaten digu zaila izango dela hauek giza eskubideekin lotuta dauden arazoak aurkezpenean laguntzea (Grimheden, 2001: 482).

### 2.3. Prozedurari atxikitako mugak

Auzitegiak bere burua giza eskubideen arloan borroka-zelai bihurtzeko aproposa egiten ez duten prozedurari lotutako zenbait arazo aurkezten ditu ere. Bertan auzitan aritzea motela, astuna eta oso garestia da<sup>31</sup>, bereziki aldeak eskumen zein demandaren onargarritasun-kontuetan nahasten direnean, organo honen praktikan nahiko ohikoa dena bestalde<sup>32</sup>. Nahiz eta Auzitegiak berak, bere ekimeenez, prozedura arintzeko hainbat saiakera martxan jarri eremu ezberdinetan<sup>33</sup>, arazo hauei konponbide aproposik eman zaiela ezin esan daiteke, batez ere kontuan edukita organo honen aurrean aurkitu daitekeen kasu kopuru gero eta handiagoa. Horri gehitu beharko genioke Auzitegiak frogan aurkezpen zein ebaluazioan nahiko errudimentarioak diren prozedurak mantentzen dituela, eta hori gatazkaren egitateak gutxieneko konplexutasun bat dutenean bereziki nabarmen bihurtzen da (Rosenne, 1985: 191-192).

Hori esanda, beharrezkoa da ere onartzea Auzitegiak, nahi izan duenean eta aldeek bide berean kolaboratu dutenean, arrazoizko denbora-epeetan lan egiteko ahalmena erakutsi duela. Horren adibide dugu Atxilotxe Agindu Judizialaren kasua, 2000ko apirilaren 11koa, Kongoko Errepublika Demokratikoaren eta Belgikaren artekoa, non bakarrik hamasei hilabete igaro behar izan ziren demanda aurkeztu

---

30. *Optional Protocol to the Vienna Convention on Consular Relations Concerning the compulsory Settlement of Disputes*. United States notification of withdrawal of 7 March 2005. Document Reference: CN.186.2005.TREATIES-1. Jakinarazpen honen osoko testua honako helbide honetan aurkitu daiteke: <<http://treaties.un.org/Pages/CNs.aspx>>.

31. Auzitegiaren aurrean agertzeko zailtasunak dituzten garapen-bidean dauden Estatuak lagundu nahian Nazio Batuen Idazkari Orokorrak «Nazioarteko Justizia Auzitegiaren bidez Estatuaren arteko gatazkak konpontzeko Idazkari Orokorraren Funtz Fiduziariora» osatuko du (Report of the Secretary General: A/47/444 of 7 October 1992, A/64/308 of 18 August 2009, A/63/229 of 8 August 2008, A/62/171 of 31 July 2007, A/61/380 of 22 September 2006, A/60/330 of 2 September 2005, A/59/372 of 21 September 2004, A/58/295 of 28 August 2003, A/57/373 of 30 August 2002 y A/56/456 of 10 October 2001). Ikus, O'Connell, 1992: 235 eta hur.; ILAAB, 2002: 234-279.

32. Horren adibide ditugu Genozidio Delituaren Prebentzio zein Zigorren Hitzarmenaren aplikazioaren kasuak, Bosnia-Herzegovina eta Serbia eta Montenegro artekoa eta Kroazia eta Serbiaren artekoa. Ikus, *Application of the Convention on the Prevention and Punishment of the Crime of Genocide (Bosnia and Herzegovina v. Serbia and Montenegro)*, Judgment of 26 February 2007 eta *Application of the Convention on the Prevention and Punishment of the Crime of Genocide (Croatia v. Serbia)*, Judgment of 18 November 2008 (Preliminary Objections), <<http://www.icj-cij.org/>>.

33. Press Release 2001/1 of 12 January 2001; Press Release 2001/32 of 31 October 2001; Press Release 2002/12 of 4 April 2002; Practice Directions, especially III, V, VI, IX, X, XI.

eta sententzia eman bitartean<sup>34</sup>. Edonola ere, Auzitegiaren egunerokoak bestelakoa erakusten digu eta konplexutasun handiagoa duten kasuetan, batez ere aldeak bereziki gogor aritzen direnean, prozesuak arrazoizko denbora-epe oro gainditzen du. Adibidez, Bosnia-Herzegovina eta Serbia eta Montenegro artean emandakoa, hamalau urtez luzatu zen demanda aurkeztu eta behin betiko sententzia lortu bitartean<sup>35</sup>, edota egun Kroazia eta Serbia biltzen dituen, non bederlatzi urte igaro behar izan dira aurretiazko salbuespenen inguruko erabakia plazaratzeko, oraindik funtsean sartu gabe, eta gauzak horrela, aurreko adibidea gaindituko duela dudarik ez dago<sup>36</sup>. Bi kasuetan, jokoan zegoena Genozidio Delituaren Prebentzio zein Zigorretarako Hitzarmenaren aplikazioa zen eta, beraz, giza eskubideei zuzenean lotutako gaiak.

Azkenik, Auzitegiaren aurrean auzitan ibiltzearen kostu ekonomikoak zer suposatzen duen argi geratuko litzateke Nazioarteko Justizia Auzitegiaren bitartez gatazken konponketa baketsurako idazkari orokorrak sortutako Funts Fiduziarioari erreferentzia eginez, horren helburu bakarra delarik Auzitegira bertaratzeko ezintasun ekonomikoak dituzten Estatuak laguntza emateko tresna bihurtzea<sup>37</sup>.

## 2.4. Organoa osatzen duten epaileen profila

Auzitegia osatzen duten kideen sentsibilitateak sailkatzen saiatzea konplexua eta, halaber, eztabaidagarria suertatu badaiteke ere, epaileek, gainerako gizakiekin suertatzen den moduan, beren esperientzia zein bizipenek markatutako profilari erantzuten diote, eta beren erabakietan eragin-elementu bazterrezin bihurtzen dira.

Epaileen hautaketa-sistemak aurreikusten duenez, beraien naziotasuna kontuan hartu gabe, Estatuaren gorenko funtzio judizialak egikaritzeko ahalmena duten pertsonen artean edota Nazioarteko Zuzenbidearen arloan gaitasun berezia eduki izanagatik nabarmendu diren juristen artean hautatu behar dira. Horri, munduko zibilizazio handiak eta sistema juridiko nagusiak organoaren orotasunean islaturik geratzearen helburua gehitu beharko zaio<sup>38</sup>. Idatzi gabeko arau batek Segurtasun Kontseiluko bost kide iraunkorrek bere naziotasuneko epaile bat modu iraunkor batean izatera eraman ditu<sup>39</sup>, gainerako hamar eserlekuak Nazio Batuen eskualde-taldean arabera hautatu beharko direlarik<sup>40</sup>. Sistema honek jatorri eta esperientzia

---

34. *Arrest Warrant of 11 April 2000 (Democratic Republic of the Congo v. Belgium)*, Judgment of 14 February 2002, <<http://www.icj-cij.org/>>.

35. *Application of the Convention on the Prevention and Punishment of the Crime of Genocide (Bosnia and Herzegovina v. Serbia and Montenegro)*, Judgment of 26 February 2007, <<http://www.icj-cij.org/>>.

36. *Application of the Convention on the Prevention and Punishment of the Crime of Genocide (Croatia v. Serbia)*, Judgment of 18 November 2008 (Preliminary Objections), <<http://www.icj-cij.org/>>.

37. <<http://www.un.org/law/trustfund/trustfund.htm>>, O'Connell, 1992: 235 eta hur.

38. NJAren Estatutuko 2. eta 9. artikulak.

39. Hein handi batean hautatze-sistema hasiera batetik dagoeneko helburu horretara zuzenduta zegoen nahiz eta arau espresurik ezin aurkitu horrelako irizpidea inposatzeko. Edonola ere, praktikan Segurtasun Kontseiluko kide iraunkorrek beren naziotasuneko epaile bat izan dute Auzitegiko kideen artean 1960tik, Txinaren salbuespenarekin 1967 eta 1985 bitarteko epean. Ikus, Rosenne, 1985: 168.

40. Eskualde-mailako talde hauek honako banaketa honi erantzungo diote: 3 kide Afrikatik, beste 3 Asiatic, 2 gehiago Latinoamerika eta Karibetik, beste 2 Ekialdeko Europatik eta, azkenik, 5 Mendebaldeko Europa eta bestelakotik.



oso ezberdinetako epaileak eraman ditu Auzitegira<sup>41</sup>. Horrek, halere, ez du eragozten bestelako errealitate garbi bat ere identifikatzea: organo horren kide izateko Estatuaren kanpo-harremanetarako lanpostuetan aldeztatik aritutako pertsonen hautaketa bihurtu dela ohikoa, bereziki Nazio Batuen Erakundearen arloan lanean aritutako pertsonenak (Merrills, 1998: 138). Horrela, egungo Auzitegiko 15 kideen artean, bi beren jatorrizko Estatuaren ministro<sup>42</sup> izan dira eta beste bat ministro<sup>43</sup>, beste bostek beren Estatuaren Atzerri Ministerioaren goi-karguak izan dituzte<sup>44</sup>, beste batek Nazio Batuen organo ezberdinen aurrean enbaxadore-funtzioak bete ditu<sup>45</sup>, eta sei bakarrik aritu dira beren Estatuaren erantzukizun-karguetatik bereiziago, batez ere irakaskuntza, justizia eta Nazio Batuen eremuan bestelako esperientzia edukita<sup>46/47</sup>.

Edonola ere, horietatik guztietatik, egungo Auzitegian bakarrik bi epaile dira bereziki ezagunak giza eskubideen arloan jorratu duten lanagatik, biak Nazioarteko Justizia Auzitegiko epaile bihurtu aurretik Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarrekiko kide eta presidente izandakoak baitira —Brasilgoa den Cançado Trindade epailea, eta estatubatuarra den Buerghental epailea—. Horiakin batera, partzialki giza eskubideen arloari lotutako funtzioen egikaritzan aritutako beste bi epaile aipatu ahal izango genituzke: Simma eta Al-Khasawneh, alemana lehena eta jordaniarra bigarrena. Orain arte esandakoak garbi uzten du, momentuz, organo hau osatzen duten kideen artean kopuru oso mugatu batek bakarrik duela giza eskubideekiko hurbila den profila. Edonola ere, horrek ez du eragotzi orain dela gutxi arte Auzitegiaren presidentea zen Rosalyn Higgins epaile britaniarrak giza eskubideak organo honen lanaren erdian kokatzen laguntzen zuten «epaile masa kritiko» baten existentzia azpimarratzea (Higgins, 2007: 746).

Egia bada ere egun giza eskubideekin lotuta dagoen epaile kopurua inoiz organo horren historian izandakoa baino handiago dela, horrek ezin gaitu urrundu organo horren benetako errealitateak; eta horrek erakusten digunez, oraindik ere, kideen gehiengo zabal batek bere bizitza profesionala bere Estatuaren zerbitzura zuzendu du, noizbait, autore ospetsu batek hauek *legal diplomat* (Abi-Saab, 1997: 167) kalifikatzera iritsi delarik ere. Honekin guztiarekin Auzitegiaren kideak giza eskubideekin sentsibilizaturik ez daudela aditzera eman nahi ez badugu ere, egia da, puntu bateraino bederen, Estatuaren sentsibilitateak hurbilago egon daitezkeelako susmoa mahaigainean jartzea badagoela.

Hori ilustratu nahian, eta garbi edukita adibide bat testuingurutik ateratzea ez dela zertan kolektiboaren jarreraren erakusgarri bihurtu, ezin ekidin dezakegu hona ekartzea organo horren epaile batek orain dela gutxi mahaigainean zuten giza eskubideei lotutako kasu batean defendatutako posizioa.

---

41. <<http://www.icj-cij.org/court/index.php?p1=1&p2=2>>.

42. Koroma eta Sepúlveda-Amor epaileak.

43. Owada epailea (Presidenteak).

44. Tomka (Presidenteordea), Jiuyong, Al-Khasawneh, Abraham eta Skotnikov epaileak.

45. Bennouna epailea.

46. Simma, Cançado, Buerghental, Greenwood, Keith eta Yusuf epaileak.

47. Egungo Auzitegia osatzen duten epaileen esperientzia profesionala sakonago aztertzeko, ikus, <<http://www.icj-cij.org/court/index.php?p1=1&p2=2&p3=1>>.

